

Familien gida 2025-2026



Egin eta Ekin: ekintzailetzaren hazia ereiten etxetik eta ongizatatetik

Garai aldakor batean bizi gara: teknologia, lana, ikasteko moduak eta arrakastaren ikuspegia etengabe aldatzen ari dira. Askotan, gurasook gure nerabeak miresmen eta nahasmen puntu batekin begiratzen ditugu. Batzuetan zaila egiten zaigu ulertzea zergatik jartzen duten beren ongizatea beste guztiaren gainetik. Askatasun pertsonala edo oreka nahiago dute egonkortasuna edo esfortzuaren gainetik.

Hala ere, begirada-aldaketa hau ez da atzera pauso bat. Garapen bat da. Belaunaldi berriek ikasten ari dira arrakasta ez dagoela gehiago lan egitean, baizik eta **esanguratsua den lanean**, ongizate emozionala zaintzean eta jasagarritasuna, sormena eta pertsonak erdigunean jarrita etorkizuna eraikitzean.

Hor kokatzen da **Egin eta Ekin** programaren benetako balioa. **Nerabeengan benetako kultura ekintzailea sustatzen dugu**, eta ez gara enpresak sortzera mugatzen. Askoz sakonagoa da lantzen duguna: **nor diren, zer motibatzen dituen eta munduan ekarpen positiboa nola egin dezaketen deskubritzen laguntzen diegu.**



Ekitea ideia bat edukitzea baino askoz gehiago da

Programa honek bizitzarako oinarri diren bederatzi gaitasun lantzen ditu. Ez dira soilik lane-rako trebetasunak, baizik eta nortasuna eta autoestimua eraikitzen duten balioak:

- 1 **Sormena**, irtenbide berriak imajinatzen ausartzeko.
- 2 **Talde-lana**, helburu partekatuak indartsuagoak direla ulertzeko.
- 3 **Rolak eta lidergoa**, lider izatea inspiratzea eta entzutea dela ikasteko eta ez soilik agintzea.
- 4 **Komunikazioa eta ahozketasuna edo hizlaritza**, pentsatzen dutena errespetuz eta segurtasunez adierazteko.
- 5 **Erabakiak hartzea**, norberaren hautuen erantzukizuna bere gain hartzeko.
- 6 **Auto-konfiantza**, zalantzak agertzen direnean ere norberarengan sinesteko.
- 7 **Gatazken konponbidea**, zubiak eraikitzeko.
- 8 **Frustrazioarekiko tolerantzia**, gauzak espero bezala ateratzen ez direnean ere aurrera jarraitzeko.
- 9 **Pentsamendu kritikoa**, bakoitzak bere iritziarekin mundua begiratzeko eta kanpoko presioak alde batera uzteko.

Gaitasun hauek eskolaren eta bizitza errearen arteko zubi dira. Etorkizunari aurre egiteko pertsona sortzaileak, enpatikoak eta helburu argiak dituztenak prestatzen dituzte.



Familia: ekiteko espaziorik egokiena

Ekintzailatzaren oinarriak ikasteko leku bat badago, etxea da.

Egin eta Ekinek eskaintzen duen ikaskuntza ez da ikasgelan amaitzen. Etxean jarraitzen du, isilean. Elkarriketa bakoitzean, erabaki partekatu bakoitzean, konfiantza-keinu bakoitzean. Batzuetan konturatu gabe ere, bizitzarako ikaskuntzak dira.

Guraso garen aldetik, **lagundu egin behar diegu, zuzendu gabe**, beren gaitasunetan konfiantza izan behar dugu, eta probatzeko, huts egiteko eta berriro saiatzeko moduko ingurunea eskaini behar diegu. Zer gustatzen zaien, zerk hunkitzen dituen edo zerk kezkatzen dituen galdetzea beren pentsamendu kritikoa eta autoezagutza sustatzea da.

Eta ezin dugu ahaztu funtsezko zerbait: haiek ikusten dutenetik ikasten dute gehien. Estresa lasaitasunez kudeatzen ikusten bagaituzte, behar dugunean laguntza eskatzen edo egiten dugunaz gozatzen badugu, emozio- eta bizi-ekintzailatzari buruzko ikasgai bat jasoko dute.

ESKOLA ETA FAMILIAREN ARTEKO ALIANTZA

Egin eta Ekin programaren helburua ez da enpresariak sortzea, baizik eta **ekimena, enpatia eta zentzua duten pertsonak hezte**a. Sortzeko, lankidetzan aritzeko eta inguruneari ekarpena egiteko gai diren pertsonak, konfiantzatik eta erantzukizunetik hezte alegia.

Horregatik, familiek duzun inplikazioa funtsezkoa da. Ekintzailatza-hezkuntza ez da gelan bakarrik gertatzen; egunerokoan lantzen da, seme-alabak entzutean, konfiantza giroa sortzean eta babesten ditugunean. Horrek pizten du **Egin eta Ekin** programaren espiritua: **kultur ekintzaila hazkunde pertsonal eta sozialaren bide gisa ulertzea**.

Ongizatea ez da helmuga, ibilbidea baizik. Eta ibilbide hori elkarrekin egitea (familiak, irakasleak eta gazteak batera) pertsonak erdigunean daudelarik etorkizun sortzaileago bat eraikitzeko modu onena da.



Berdintasuna ikasketak aukeratzean: **erronka bat euskal familientzat**

EAEko —eta, bereziki, Bizkaiko— nerabeak dituzten familientzat funtsezkoa da jakitea nola banatzen diren ikasketa-aukerak nesken eta mutilen artean, eredu horiek eragina baitute haien etorkizuneko aukeretan.

Jarraian, gure eremurako garrantzitsuak diren datu batzuk aurkeztuko ditugu, eta azalduko dugu nola lagun dezakezen etxetik ohiko genero rolak deseraikitzen.

ZER DIOTE DATUEK BIZKAIA?

Txosten berriek erakusten dutenez, **ikaske-ta-eremuaren arabera banaketak generoaren arabera oso bereizita jarraitzen du.**


Datu horiek argi erakusten dute neskek eta mutilek oraindik ere sarritan aukeratzen dutela beren generoari “dagokion” bidean jarraituz.

ZERGATIK DA KEZKAGARRIA?

Familia- eta hezkuntza-psikologiaren ikuspegitik, garrantzitsua da ulertzea ikasketa hauek ez dutela soilik gustu pertsonala islatzen. Gizarte-arauek, genero-itxaropenek eta eredu ikusezinek ere baldintzatzen dute. Eta horrek ondorio hauek ditu:

- Gizonezkoak nagusi diren arloak (ingeniaritza, TIC) lan-aukera hobeeekin, ordainsari altuagoekin eta berrikuntza teknologikoan protagonismo handiagoarekin lotuta daude.
- Emakumeak nagusi diren arloak (osasuna, hezkuntza, zaintza) funtsezkoak dira, baina maiz prekaritate handiagoa edo balio sozial txikiagoa jasaten dute.
- Neskei erreferenterik falta bazaie, edo mutilek ez badute “nesken arlotzat” jotzen diren-eta hurbiltzeko segurtasunik, aukera batzuk ixten dira.
- Generoaren arabera muga horiek talentua alferrik galtzea dakarte, eta gizarte gisa ezin dugu hori onartu.

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA



Zer egin dezakete Bizkaiko familiek aukera berdintasuna sustatzeko?

Guraso gisa, zure papera erabakigarria da seme-alabek **askatasunez, euren interesetik eta este-reotiporik gabe** aukeratu dezaten. Hona hemen orientazio batzuk:

- **Informa zaitez eta partekatu datuak:** zure seme-alabek genero-arrakala hori dagoela jakitea ez da "astuna", haiek ahalduzko modu bat baizik erabaki kontzienteak har ditzaten.
- **Bere jakin-mina sustatu: bere genero-rako oso tradizionalak ez diren esparruak aztertzea animatu.** Adibidez, teknologia-rako edo ingeniariartzarako joera duen alaba bat baduzu lagundu azoketara, tailerretara, hitzaldietara; erakutsi iezaiozu emakume ereduak daudela alor horietan. Era berean, osasunarekiko, zaintzarekiko eta hezkuntzarekiko interesa duen seme bat baduzu balidatu interes hori eta erakutsi lanbide horiek ere gizonak behar dituztela.
- **Mezu ezkutatuak zalantzan jarri.** "Hori neskentzakoa da" edo "zerbait teknikoagoa aukeratu beharko zenuke" entzuten duzunean, elkarriketa zabaltzeko aukera paregabea da. Zergatik? zer interesatzen zaizu? zergatik esaten dute hori?
- **Agerian utzi lanbide guztiek dutela balioa,** eta garrantzitsuenak egiten dutenaren interesa, motibazioa eta kalitatea direla, ez egiten duenaren generoa.
- **Akatsak onartu eta norabidea aldatzeko askatasuna eman.** Aukeratutako bideak ez baditu konbentzitzen, aldaketa aukera osasuntsua da.
- **Eskolarekin harremanetan egon.** Orientazioa, berdintasuna edo STEAM tailerrak bezalako ekimenak ezagutzea lagungarria da, eta elkarriketan parte hartzeak markatzen du aldea.

